

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

**Kazetaritza gradua**  
IKASTURTEA 2016-2017

**Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika**

EGILEA: Peli Lekuona Arruabarrena  
ZUZENDARIA: Terese Mendiguren Galdospin

Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika

## **Aurkibidea**

---

1. SARRERA .....	4
2. AZALPEN MEMORIA .....	5
2.1 Ideiaren jatorria .....	5
2.2 Lanaren interesa eta testuingurua .....	5
2.3 Autorearen intentzio eta helburuak .....	9
2.4 Euskarriaren zergatia .....	10
3. SORMEN PROZESUA .....	11
3.1 Iturriak .....	11
3.1.1 Iturri dokumentalak .....	11
3.1.2 Ikusentzunezko iturriak .....	12
3.1.3 Iturri pertsonalak .....	13
3.2 Erabilitako teknologia .....	14
3.3 Gidoia .....	15
3.3.1 Aurre gidoia .....	15
3.3.2 Azken gidoia .....	16
3.4 Kronograma .....	20
3.4.1 Sormen prozesuaren garapena .....	21
4. KONPETENTZIAK ETA ZAILTASUNAK .....	32
4.1 Konpetentziak .....	32
4.2 Zailtasunak .....	32
5. ONDORIOAK .....	33
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....	34
7. ERANSKINAK .....	35
Oharra: .....	35

## 1. SARRERA

---

Euskara guztiz aberatsa den hizkuntza da. 5000 adorez sinonimo hiztegian "Korrika" hitza bilatuz gero, bost sinonimo ezberdin agertzen dira: "Lasterka", "arineketan", "arrapaladan", "antxintxika" eta "arin-arinka". Hala ere, hizkuntzak ez dira sinonimoez elikatzen. Hizkuntzak erabileraz, ezagutzaz eta ikasteko interesaz bizi dira eta horretan datza Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundearen (AEK) lanak. Bi urtero, euskalduntze erakundeak "Korrika" hitzari seigarren esanahia ematen dio, euskararen aldeko ekintza jendetsuena antolatuz. 1980. urtean antolatu zen lehenengoz Korrika eta 37 urte pasa eta gero, 20. Korrika burutu da. Horrexegatik, "Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika" erreportajeak Korrikaren historia eta 2017. urteko edizioaren soinu eta ahotsak bere baitan jaso ditu.

## 2. AZALPEN MEMORIA

---

### 2.1 Ideiaren jatorria

---

Txikitatik euskaltzale sentitu naiz eta Irun bezalako inguru ez euskaldun batekoa izanik (irungo euskal hiztunak 30446 dira, biztanleen %49.8-a (Arregi B. , 2016)), euskaren aldeko ekintzak gauzatu dituztenei eta euskara partekatzeko aukera eman didatenei begirune handia diet. AEK eta Korrikako antolatzaileak ere multzo horretan daude eta beraiekiko begirunea 2013. urtean, 18. Korrikan, sortu zen. Izan ere, Betti-Gotti izeneko Euskal Kultur Elkarteko kide nintzelarik parte hartu nuen lehenengoz Korrikan. Gaueko ordu txikietan, 2496. kilometroa burutuz, lekukoa Santiagoko zubiraino eramanez. Une horretan Korrika nire izaeraren zati bihurtu zen. Beraz, Korrikazale eta Korrikaren defendatzaile izanik, lasterketaren 20. edizioa bestelako modu batean bizitzeko eta gehiago ezagutzeko hautua egin nuen.

Irrati zalea naiz eta Kazetaritza ikasketek irratia mundua gehiago ezagutzeko aukera eman didate. Baita ere, Radio Euskadi irrati katean zazpi hilabetetan gauzatutako praktikan, unibertsitatean bezain beste ikasi dut.

Korrika eta irratia baturatik jaio da "*Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika*". Korrika gehiago ezagutzeko eta irratia eta kazetaritzari diodan bokazioa sustatuz, Korrikarekin erlazio aktiboa izan duten pertsonak elkarriketatu ditut eta testigantzak 20. Korrika ardatz duen erreportaje batean batu ditut. Honela, grabagailuaz lagunduta, Euskal Herria zeharkatu dut lasterketa jarraituz eta Korrikaren inguruko bizipenak ezagutuz.

### 2.2 Lanaren interesa eta testuingurua

---

Korrika lasterka egiten den errelebo lasterketa bat da. Bertan, kilometro bateko erreleboak eginez, adin guztietako ehundaka gizon, emakume eta gaztek Euskal Herria zeharkatzen dute, testigua jarraituz. Lasterketaren helburu nagusiak euskararen sustapena, euskalduntze prozesuaren sustapena eta Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundearen finantzaketa dira.

Korrikaren sorrera ezin daiteke ulertu Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundearen sorrera ezagutu gabe. 1966an, Euskaltzaindia barnean, hainbat partaidek euskararen jazarpena eta atzerapena kontuan hartuz, gizartearen euskalduntzea sustatzeko komisia sortu zuten. "*Komisio honen helburuak bi ziren: euskara ezagutzen ez duenari hizkuntza irakastea eta euskaldunak alfabetatzea*". (Valle, 1988)

Euskalduntze mugimenduaren barnean Ricardo Arregi kazetariak Jose Maria Satrustegi euskaltzainari gutun bidez luzatu zion euskara ofizialtasunez irakasteko eskaera. Era berean, gutun hau lehen bi korriketako mezua izan zen:

*Andoain'dik 1966'go ilbeltzaren 17'an*

*Jaun apeza: Zuk Baiona'n esandakoak kontuan arturik laguntzaille gazte batzuek gure eginkizuna bete nai dugu Euskaltzindiaren barruan. Ortarako gure adiskideekin batera euskeraz irakurtzen eta idazten ez dakiten euskaldunei ori egiten erakusteko jokabide batean pentsatu dugu. Ori ikus dezazun emen bialtzen dizkitzut bi orri multikopian atera-takoak eta beste euskaltzaleei ere bidalitakoak gure asmoak agertuaz.*

*Gainera zu naparra zeran ezkerro beste zerbait esan nai nizuke, ez ote legoke Naparro'ko beste euskaldunekin beste orrenbeste egiterik? Gu, gazte talde bat, prest gaude edozertan laguntzeko. Erakusleak eta guk arkituko ditugu ta ontarako Naparro'ko buru diranekin artu-emanetan jartzea komeni ote litzake? Zuk beste ifiork baino obeto jakin lezakezu, orregatik galdetzen dizut.*

*Uste dugu gure asmoak gogo onez artuko dituzula ta gurekin ados bazera zure botua proposatze onen aide emango duzula. Gaifiera billera ortara etortzerik ez baduzu ta zure iritzi proposatze oni dagokionez baiezkoa baldin bada, errespeto aundienarekin zure iritzia emanaz alik eta lehen Euskaltzaindiari idazteko eskatzen dizugu.*

*Denbora galdu erazi ez dizugulakoan eta aurrez aurretik zure borondate borondate suagatik eskerrak emanaz agur dizu zure serbitzari den RICARDO ARREGI'k. (Arregi R. , 1966)*

Eskaera ofizialez gain, 60.hamarkadan, Euskal Herriko lehen alfabetatze taldeak sortu ziren. Alfabetatze taldeen gehiengoa gau-eskolak ziren eta "1974-1975 ikasturtean Gipuzkoako gau-eskolen elkarteak sortu zen. 1976an Bizkaiko hainbat ikasguk koordinatzea erabaki zuten, eta Koordinakunde honek lehen aldiz AEK izena hartu zuen." (Gurrutxaga, Mikel, & Ubeda, 1997)

Gerora, Hego Euskal Herriko gau-eskolek koordinatzeko erabakia hartu zutenean, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea sortuz. 1979an koordinakundearen lehen mintegia gauzatu zen eta 1980an Ipar Euskal Herriko AEK sortu zen.

1979an, Eusko Alderdi Jeltzaleak lehen hauteskundeak irabazi zituenean, AEK euskalduntzearen zerbitzu bihurtuko zela uste zen. Ustearen indarraren ondorioz, AEKk jasoko zuen diru kopurua aurrekontuetan zehaztua zegoen, baina "AEKk mantendu nahi zuen autonomia ez zen bateragarria aintzatespen ofizialarekin" (Valle, 1988) eta bi erakundeen arteko akordioa ez zen sortu.

Diru beharra dela eta AEKko kide batzuk eta hainbat euskaltzalek bilerak eta afariak gauzatu zituzten, ekitaldi bat antolatzekeo intentzioarekin. Bileren partaideen artean Julen Kaltzada, Alberto Gabika Bittor Artola, Jesús Naberan

eta Urtsa Errasti zeuden. Azkenik, afari baten bueltan zehaztu zen Korrikaren ideia, Euskal Herria zeharkatuko zuen errelebo lasterketa.

Ideiaren sorrera ondo ulertzeko, garaiko hainbat ekintza ezagutu behar dira: 1978. urteko Bai Euskarari kanpaina eta 1979. urteko Askatasunaren martxa. Helburuak ezberdinak izan arren, bi ekitaldien parte-hartzea masiboa izan zen. Kontestu honetan, AEK bere ekitaldia antolatzeko erabakia hartu zuen:

*80. urtean gaude. Han hemenka kanpainak, anifestaldiak, antolatzen dira euskararen alde: KILOMETROAK, IBILALDIA... eta eguneroko lana. Askotan gogorra eta astuna. Neketsua ere. Baina egin beharrekoa beti. Saltsa honetan, eta afari baten ostean AEK-ri KORRIKA, 1.KORRIKA antolatzea bururutzen zaio. (AEK, 1983)*

Korrikak hainbat helburu batzen ditu. Lehenik, AEKren euskalduntze lana azaleratzea; euskararen irakaspina sustatzea; eta AEKren finantzaketarako dirua lortzea.

Errelebo lasterketa antolatzeko bi urte baliatzen dira. Lehenik, AEKko Asanblada Nagusiak eta Korrikaren koordinatzaileak lehen xehetasunak erabakitzen dituzte (ibilbidearen hasiera eta amaiera, omendua, mezugilea...). Gerora, herrialdeko, eskualdeko eta herrietako batzordeak sortzen dira, tokian tokiko erabakiak hartzeko. Batzordeetako parte-hartzea irekia da, ez da beharrezkoa AEKko partaide izatea.

AEK finantzatzeko, Korrikako kilometroak saldu egiten dira. Hauek elkarteek, alderdi politikoek, instituzioek edo gizabanakoek erosten dituzte. Gerora, talde bakoitzak aukeratuko du nork eramango duen lekukoa.

Hauexek dira 1980 eta 2017 urteen artean ospatu diren korrikak:

Edizioa	Datak	Ibilbidea	Leloa	Abestia
1.	1980ko azaroaren 29tik abenduaren 7ra	Oñati-Bilbo	Zuk ere esan bai euskarari!	"Korrika1" (Xabier Amuriza)
2.	1982ko maiatzaren 22tik 30era	Iruñea-Donostia	AEK, euskararen alternatiba herritarra	"Korrika2" (Akelarre)
3.	1983ko abenduaren 3tik 11ra	Baiona-Bilbo	Euskaraz eta kitto!	"Korrika3" (Egan)
4.	1985eko maiatzaren 31tik ekainaren 9ra	Atharratze-Iruñea	Herri bat, hizkuntza bat!	"Korrika4" (Lontxo Aburuza)
5.	1987ko apirilaren 3tik 12ra	Hendaia-Bilbo	Euskara, zeurea	"Korrika5" (Oskorri)
6.	1989ko martxoaren 15etik 24ra	Iruñea-Donostia	Euskal Herriak AEK	"Gu AEKkoak gara" (Xanti eta Mainer)

Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika

7.	1991ko martxoaren 14etik 23ra	Gasteiz-Baiona	Korrika euskara, euskaraz Euskal Herria	"Korrika7" (Irigoi anaiak eta Mikel Erramuspe)
8.	1993ko martxoaren 26tik apirilaren 4ra	Iruñea-Bilbo	Denok maite dugure herria euskaraz	"Aide Korrika" (Tapia eta Leturia)
9.	1995eko martxoaren 17tik 26ra	Donibane Garazi-Gasteiz	Jalgi hadi euskara	"Bizi ganoraz" (Maixa eta Ixiar, Alex Sardui eta Kepa Junkera)
10.	1997ko martxoaren 14tik 23ra	Arantzazu-Bilbo	Euskal Herria Korrika!	"Euskal Herria Korrika" (Gozategi)
11.	1999ko martxoaren 19tik 28ra	Iruñea-Donostia	Zu eta ni euskaraz	"1 eta 1" (Joxe Ripiau)
12.	2001eko martxoaren 29tik apirilaren 8ra	Gasteiz-Baiona	Mundu bat euskarara bildu	"Big Beñat" (Fermin Muguruza)
13.	2003ko apirilaren 4tik 13ra	Maule-Iruñea	Herri bat geroa lantzen	"Gero bat gaurdanik" (Mikel laboa eta Ruper Ordorika)
14.	2005eko martxoaren 10etik 20ra	Orreaga-Bilbo	Euskal Herria euskalduntzen, Ni ere bai!	"Ni ere bai" (Afrika Bibang)
15.	2007ko martxoaren 22tik apirilaren 1era	Karrantza-Iruñea	Heldu hitzari, lekukoari, elkarlanari, euskarari, herriari	"Heldu" (Niko Etxart eta El Drogas)
16.	2009ko martxoaren 26tik apirilaren 5eta	Tutera-Gasteiz	Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira!	"Ongi etorri laguna" (Betagarri)
17.	2011ko apirilaren 7tik 17ra	Trebiñu-Donostia	Maitatu, ikasi, ari... Euskalakari	"Pausoz pauso euskalakari (Gose)
18.	2013ko martxoaren 14tik 24ra	Andoain-Baiona	Eman Euskara Elkarri	"Bagoaz" (Esne Beltza)
19.	2015eko martxoaren 19tik 29ra	Urepele-Bilbo	Euskahaldun	"Denok Korrikara"
20.	2017ko martxoaren 30etik apirilaren 9ra	Otxandio-Iruñea	BatZuk	"Zirkorrika"



## 2.3 Autorearen intentzio eta helburuak

---

"*Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika*" erreportajeak Euskal Herrian gauzatzen den mobilizazio jendetsuenen sakontzeko intentzioa du. Horretarako, Korrikarekin erlazio aktiboa duten pertsonak elkarrizketatuz, Korrikarekin edukitako lehen kontaktuan, inplikazioan, bitxikerietan eta 20. edizioaren itxaropenetan sakontzen da.

20. Korrikaren tokian-tokiko jarraipena egitea erreportajearen helburuetako bat da. Honela, ibilbidea erreportajearen haritzat hartuta, elkarrizketatu bakoitzari gune zehatz bat ezarri zaio. Baita ere, lasterketa jarraituz, Korrikaren hasiera eta amaiera ekitaldiek erreportajearen lekua hartu dute.

Euskararen aldeko errelebo lasterketa jarraituz eta Korrikarekin erlazio aktiboa duten pertsonak elkarrizketatuz, ekitaldiaren hainbat punturi ikusgarritasuna emateko saiakera egin da:

- Korrikak sortzen duen festa giro, poztasun eta garrantzia.
- 20. Korrikaren leloa, omenduak eta mezua.
- Korrikaren hasiera, sorrera, lehen edizioak eta lehenengo mezua.
- Korrikaren eta euskararen egoera Erriberan.
- Lekukoaren garrantzia errelebo lasterketan.
- Lehenengo abestiaren sorrera.
- Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea eta Korrikaren koordinazio lana.

## 2.4 Euskarriaren zergatia

---

Irratirako erreportaje bat aukeratu izana ez da alde zuretik pentsatu gabeko erabaki bat. *"Idazkera eta informazio lokuzioa irrastian"* Gradu Amaierako Lanaren esleipena jaso ondoren, argi nuen jorratu beharreko gaia Korrika eta honen 20. edizioa zela. Hala ere, zergatik baliatu erreportaje bat gaia garatzeko?

Irratirako erreportaje bat gauzatu, grabagailu soil batekin, Korrikako protagonistengana eta uneko gertakizunetara gerturatzea errazagoa izan da. Kazetariarentzat aparailu tipikoa eramatearen erosotasuna dena, elkarrizketatuaren intimitate burbuilan sartzeko giltza da. Izan ere, elkarrizketak gauzatzeko iturriek aukeraturiko txokoetara gerturatu naiz.

The Buglles-en bestiak "Video killed the radio star" dioten arren, irratiaren egoera egonkorra da Espainian: *"Krisiak larritasunez eragin duen arren irratiaren sostenguan, publizitate inbertsioak, audientzian ez da hala izan, indartu ere egin da hedabide tradizional eta merkea izateagatik"* (Díaz Aguilar, Bazalo Porras, Escalona Andreu, Muñoz Navarro, & Pérez Rufí, 2015). Hortaz, zentzu handia dauka irratirako erreportaje bat sortzeak, hedabidearen osasuna dela eta.

Hamahiru minutuko iraupena duten erreportajeak egungo irratigintzan ez dira ohikoak. Horregatik, entzulearen erakargarritasuna sustatzeko eta ez aspertzeko derrigorrezkoak dira dinamismoa, arintasuna eta freskotasuna. Ezaugarri hauek bermatzeko hainbat baldintza betetzea bilatu da:

- Korrikako abestien presentzia.
- Elkarrizketatuen aipuak aukeratzeko lan sakona, aipu onenak aukeratu.
- Giroa eta lekukotasunen naturaltasuna.
- Ahots ezberdinen metaketa.

### 3. SORMEN PROZESUA

---

#### 3.1 Iturriak

---

##### 3.1.1 Iturri dokumentalak

---

"Lasterketa, arineketan, antxintxika, korrika" erreportajea gauzatzeko hainbat iturri dokumental kontsultatu dira:

- **Korrika rituales de la lengua en el espacio:** Teresa del Valle Antropologiako Doktore donostiarrak, 1984. urtean, egindako ikerketaren emaitza da. Del Valle irakasleak Korrikaren kontestu linguistiko eta politikoa aztertuz, ekitaldiko kontraesanak aztertu zituen:

*"El punto relevante del estudio, se intenta demostrar como en Korrika, a la vez que aparecen numerosas contradicciones, se intentan resolver algunas de ellas a un nivel simbólico, produciéndose en distintos momentos de la carrera y a través de distintos mecanismos una situación liminar y una actualización de la metáfora de la unidad vasca, especialmente en lo que concierne a la lengua, al territorio y a la aceptación o rechazo de un proyecto cultural concreto."* (Valle, 1988)

*"El planteamiento de la autora es que parte de la fuerza de korrika se basa en la utilización de elementos, símbolos mecanismos que tienen su apoyo en la tradición cultural, aunque se presenten en un contexto moderno, propio de la sociedad industrializada."* (Valle, 1988)

Teresa del Valle Doktorearen lana Korrikari buruz gauzatu den azterketa antropologiko bakarra da. Bertan, errelebo lasterketaren jatorria eta 80. hamarkadako testuingurua ezagutu daiteke.

- **Euskal Herria Korrika 17 urte, 10 pausotan:** Liburu honek korrikaren lehen hamazazpi urteak eta lehen 10 edizioak ezagutzeko aukera ematen du. Liburua AEK eta Egunkariaren arteko proiektua da. Izan ere, Amagoia Gurrutxaga, Mikel Elorza eta Garbiñe Ubeda kazetariak gauzatutako lana atalka banatu zen Egunkaria egunkariarekin batera. Bertan, Korrikaren ikur guztiek atal propioa dute eta aipagarriak dira Korrikaren edizio bakoitza laburtzen duten infografiak.

### 3.1.2 Ikus-entzunezko iturriak

---

“Lasterketa, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajea gauzatzeko hainbat ikus-entzunezko iturri kontsultatu dira:

- **25 urte korrika:** Eriz Zapiain eta Eider Rodríguezen lanak Korrikaren lehen 25 urteak laburtzen ditu. Horretarako, Korrikaren lehen 14 edizioekin erlazioa izan duten pertsonen testigantzak batzen ditu. Hizlarien artean, Julen Kaltzada, Urtsa Errasti, Juan Gorriti, Eli Galdos eta beste asko daude. Testigantzak artxiboko irudiekin nahasten dira dokumentalean.
- **Tribuaren Berbak; 48. Korrika badator:** Tribuaren berbak saioan, 19. Korrika abiatu aurretik, errelebo lasterketari buruz egindako saioa da. Bertan, 19. Korrikarako “prestaketak” eginez, korrikarekin erlazioa duten hainbat pertsonen kontakizunak batzen ditu Kike Amonarrizek. Korrikaren lehen lekukotik hasita, 0. Kilometroko petoa eraman arte. Erreportajea Asier Amondo, Amets Arzallus, Edurne Brouard eta beste asko ageri dira.
- **Korrikaren sekzioa Radio Euskadiko “Graffiti” saioan:** Korrika hasi baino zortzi aste lehenago, ostegunero, errelebo lasterketak leku propioa izan du irrati saioan. Astero Korrikarekin erlazioaturiko protagonistak estudioetatik pasa dira eta ekitaldiaren puntu ezberdinetaz hitz egin zuten: Korrikaren iragana, oraina eta geroa; Korrikaren sorrerak; Korrika20 euskararen lau aurpegi; Omenduak; Korrika batzordeak; Porrotx eta Marimototx; Furgonetatik eta Korrika aurreko 7 egunak.

### 3.1.3 Iturri pertsonalak

---

“Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajea Korrikarekin erlazio aktiboa duten zortzi pertsona elkarrizketatu dira. Iturri hauen kontakizunak berebizikoak izan dira erreportajea osatzeko. Izan ere, aipu onenak aukeratzeko lan sakona gauzatu ondoren, Korrikaren ibilbidea ardatz hartuta, txoko bakoitzeko pertsona baten kontakizunetan sakontzen da.

- **Asier Amondo (Laudio, 1969):** Korrikaren koordinatzailea da. AEKn 1987an sartu zen, udako ordezkapen bat egitera. Ordutik, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeko irakasle da. Hasieran, Laudion eta 2004-2013 artean AEKko artekaritza kontseiluan. Azkenik, 2013an Korrikaren ardura hartu zuen.

15. Korrikatik korrika batzordeko kide da eta 2013an Korrikako koordinatzaile postua hartuta, Korrikaren 19. Eta 20. edizioak antolatu ditu.

- **Urtsa Errazti (Bilbo, 1954):** Lehen bost Korriketako koordinatzailea eta Korrikaren sortzaileetako bat da. 1980an AEKko ekonomia arduraduna izanik antolatu zuen errelebo lasterketa. Lehen Korrikako antolatzaileak garaiko beste ekitaldietan erreparatu ziren (Bai Euskarari eta Askatasunaren Martxak). Hala ere, sortuko zen ekitaldiak Euskal Herriatik mugitzeko bete-beharra zuen, ekitaldia leku bakarrera ez mugatzeko.
- **Alizia Iribarren (Tutera):** Iribarrenek zuzeneko lotura dauka AEKrekin. Izan ere, Tuterako AEKko irakaslea, Erriberako AEKko arduraduna eta Nafarroako AEKko koordinatzailea da. 18 urte zituelarik sartu zen AEKn, ama euskaltegiko ikasle zelarik, Alizia Iribarrenek irakasle izateko proposamena jaso zuen.
- **Juan Gorriti (Oderitz, 1942):** Eskultore eta zurgina da. Egun, Arriben duen baserrian bizi da eta 1980an Remigio Mendibururi Korrikaren testigua sortzen lagundu zion. Testigua sortzeko, Remigio Mendiburu Gorritiren egongelako motrailu batean erreparatu zen. 9. Korrikan, Gorritik egun erabiltzen den lekukoa sortu zuen, diseinu berdina mantenduz eta lekukoaren muturra hobetuz.
- **Xabier Amuriza (Etxano, 1941)** 1980. urtea berezia da Amurizarentzat. Lehenengoz irabazi zuen Euskal Herriko Bertso Txapelketa, Donostian, eta lehen Korrikako abestia sortu zuen. AEKko hainbat kiderekin zuen harremanaren ondorioz, Korrikako abestia sortzea eskatu zioten. Enkargua gauzatzeko epe laburreratik, Derioko

itxialdietako "Kantatuaz" abestia baliatu zuen "Korrika1" abestia sortzeko.

- **Edurne Brouard:** Gaztetatik hasi zen Brouard Euskara klaseak ematen. 1980. urtean, garaiko D titulua lortu ondoren, AEKk Errekaldeko euskaltegian klaseak emateko aukera eman zion. Gerora, Korrikako koordinazio taldean lan egin zuen eta 13. Korrikatik 18.eraino errelebo lasterketako Koordinazio taldean egon da.
- **Mertxe Mugika (Elorrio):** Mugika AEKko Koordinatzailea da. Nerabezaroan ikasle gisa gerturatu zen Elorriko euskaltegira, euskaraz alfabetatzeko eta EGA agiria lortzeko. Klaseak amaituta, irakasleen beharra dela eta, AEKko klase didaktikoak jaso zituen, klaseak ematen hasteko. Urte luzez irakasle izan ondoren, 2006an, AEKko Koordinatzaile izatera pasa zen.
- **Andoni Seijo (Lekeitio):** Ogibidez margolaria izan arren, urte askoz Korrikaren "ibilbide" taldeko partaidea izan da. Korrikaren 20 edizioetatik, 13 ediziotan parte-hartu du "ibilbide" taldean. Xabier Alegriak Korrikaren koordinatzaile kargua hartu zuenean, Seijok "ibilbide" taldeko arduraria hartu zuen. Erreportajearen iraupena dela eta, erreportajetik kanpo gelditu dira bere testigantzak.

### 3.2 Erabilitako teknologia

Erreportajea gauzatzeko, lau erreminta baliatu dira: grabagailua, mugikorra, mikrofonoa eta ordenagailua. Lan prozedura laburtuz, lehenengo elkarrizketak gauzatu dira, Korrikaren jarraipena egin da eta, azkenik, erreportajea editatu da.

Iturri pertsonalekin gauzatutako elkarrizketak mugikorraren grabagailuarekin grabatu dira. Korrikaren jarraipena eta tokian-tokiko pasarteak grabagailua eta mikrofonoarekin grabatu dira eta edizio lanetarako ordenagailurako Audacity programa baliatu da.

### 3.3 Gidoia

“Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajea gauzatzeko, bi gidoi baliatu dira. Lehenbizi, aurre gidoi bat egin da. Bertan, erreportajearen kontakizun nagusiak, protagonistak eta hauen eremu geografikoa aipatzen da.

Azken gidoia elkarrizketak eta aipuen aukeraketa egin ondoren idatzi da. Bertan, 20. Korrikaren ildoari, elkarrizketatuen kontakizunak txertatu zaizkio.

#### 3.3.1 Aurre gidoia

Lekua	Idea nagusiak	Iturria
Otxandio	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Korrika Otxandion hastearen zergatia</li> <li>- Gaurkotasuna</li> <li>- 20 Korrikako omenduak</li> </ul>	Asier Amondo
Gasteiz	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Korrikaren sorrera</li> <li>- Lehen arratsaldeko giroa</li> </ul>	Urtza Errasti
Tutera	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen egoera Erriberan</li> <li>- Erriberako gauetako epikotasuna</li> </ul>	Alizia Iribarren
Arribe	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testiguaren sorrera</li> <li>- Egungo Gorritiren testigua</li> </ul>	Juan Gorriti
Donostia	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Xabier Amurizaren bertso lehiaketa eta lehen abestia 1980an</li> </ul>	Xabier Amuriza
Lekeitio	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <del>Andoni Seijo eta furgonetako bizipenak</del></li> <li>- <del>Boluntarioak, furgonetako animoak</del></li> </ul>	Andoni Seije
Bilbo	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Edurne Brouard eta ahizpa bilbotik korrika aita erail ondoren</li> <li>- Edurne Brouard, AEKko ikasle izatetik koordinatzaile izatera</li> </ul>	Edurne Brouard
Laudio	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Asier Amondo korrikaren koordinazioan jasotako erreleboa</li> <li>- Amondoren bigaren korrika</li> </ul>	Asier Amondo
Oñati	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oñati sinbolo: Euskaltzaindia, Euskara batua, AEK...</li> <li>- AEKren egoera, jende kopuruak, euskalduntze prozesua...</li> <li>- Korrikaren eragina erakundean</li> </ul>	Mertxe Mugika
Iruñea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 20. Korrikaren amaiera</li> <li>- Mezua emalea eta mezua</li> </ul>	

### 3.3.2 Azken gidoia

---

20. Korrika hastear dago, Otxandion. Gaur, martxoak 30, plaza nagusia euskaltzalez lepo dago, Euskararen aldeko errelebo lasterketari hasiera emateko.

#### HASIERA OTXANDIO (00.21)

Edizio honetako leloa BatZuk da. Euskarara batzeko deia dela azaldu du Asier Amondo, Korrikaren koordinatzaileak.

#### BATZUK AMONDO (00.25)

#### GIRO SOINUA

Otxandion eguna Korrika txikiarekin hasi da eta arratsaldean antzerkiak eta zirkuak hartu du herria. Azken aureskuarekin, mezua testiguan sartu eta hasi da errelebo lasterketa. Lehen kilometroa Joseba Kanpo eta Korrikaren sortzaileena izan da. Testigua Urtsa Errastik hartu du eta bere inguruan Kanporen senideak joan dira.

#### AURRERA KORRIKA AMONDO (00.05)

Korrika Gasteizerantz doan einean Urtsa Errasti, lehen bost korriketako koordinatzailearekin ezagutuko dugu, Korrikaren hasiera, sorrera eta lehen edizioak.

#### ABESTIA "Korrika2", Akelarre

Esan bezala, Urtsa Errasti korrikaren sortzaileetako bat da eta lehen bost korriketako koordinatzailea izan zen. 70. Hamarkadan hasi zen Euskara klaseak ematen Barakaldoko gau eskolan eta Erromoko gau eskolan. Hamarkada beran, AEKren hedapena eta diru beharraren ondorioz sortu zuten, AEK kideek, ekitaldi berri bat sortzeko ideia.

#### KORRIKA IDEIA ERRASTI (00.14)

Kondairak dio, Korrika afari batean sortu zela. Ala ere, kondaira guztietan bezala, badaude egi eta zurrumurruak.

#### KORRIKA KONDAIRA ERRASTI (00.13)

Ekitaldia gauzatu aurreko bileretan izenaren inguruan ere iritzi ezberdinak egon ziren. Azkenik, Joxepe Zuazok proposatu zuen Korrika izena.



Izena eta ideia nagusia edukita, urte betez egon zen lan taldea Korrika prestatzen. Bete beharren artean: kilometroak banatzea, baimenak eskatzea eta Korrika bera zer zen azaltzea.

#### ZALANTZAK ERRASTI (00.13)

Euskal herriak Korrika hartu zuen eta Abenduaren 29an, gaueko hamarretan, abiatu zen korrika Oinatitik, elurpean. Jose Maria Satrustegi, euskaltzainak, eta Eli Galdos, Gipuzkoako ahaldun nagusiak, bete zuten lehen kilometroa txistu, itxafero eta kanpaikaden artean.

Hala ere, lehen korrikako mezuak ez zuen ibilbidea Oñatin hasi. Korrikaren komisionan sortu zen ideia eta Sakanan sartu zuten mezua. Politikoki aseptikoa zen mezu bat sartu zen. Rikardo Arregik Euskaltzaindiari 1966an idatzi zion mezua. Baina, Korrika Bilbora iritsi zen eta mezua desagertu egin zen.

Zorionez, lekukoan doan mezuaz gain, antolakuntzak mezuaren kopia bat eramaten du. 20. Edizio honetan ez dago elurrik, beroa eta hego haizea dira lehen arratsalde honetako protagonistak. Halaxe sartu da korrika Gasteizen....

#### GIRO SOINUA

Dagoeneko Korrika Erriberaraino iritsi da. Tutera inguruan egin du bigarren gaua. Lauak hamar gutxitan zeharkatu du Zaragozako etorbidea.

20. Korrikarako zazpi herritan sortu dira korrika batzordeak Erriberan. Korrika modu ezberdinean bizi dela azaldu du Alizia Iribarren Nafarroako AEKko koordinatzaileak.

#### NOLA BIZI DA KORRIKA ERRIBERAN (00.25)

Une honetan 75 lagun daude Erriberako euskaltegietan. Tuteraz gain, Alesbes eta Zintruenigon ditu aurten klaseak AEKk. Azken urteekin alderatuz euskara ikasteko nahiak gora egin du Erriberan.

#### ABESTIA "Korrika5", Oskorri

Korrika aurrera doa, Arribera iritsi arte. Korrikak sei egunetan 1072 kilometro egin ditu eta Nafarroa iparraldetik hegoaldera bitan zeharkatu eta Nafarroa Behera, Lapurdi eta Zuberoa bisitatu ondoren, Nafarroako iparraldera bueltan dator lasterketa, Gipuzkoara salto egiteko.

Goizeko seiak izan arren, Arriben giroa ezin hobea da. Arribetarrak eskulturaz beteriko etxe baten inguruan daude. Izan ere, bertan bizi da Juan Gorriti eskultorea. 1980an Remigio Mendibururekin sortu zuen Korrikako protagonista handia, Lekukoa.

Gorritik dio Remigio Mendiburu sentikortasun handiko pertsona zela eta lan egiteko, lehenengo sentitu eta ikusi behar dela. Lekukoaren kasuan ere hala izan zen. Mendiburu Juan Gorritiren etxeko egongelan ikusi zuen motrailu batean erreparatu zen, Korrikako lekukoa sortzeko.

#### MOTRAILUA GORRITI (00.26)

Pagoa baliatu zuen Remigio Mendiburuk lehen lekukoa egiteko, baina lekuko hau ireki egiten zen, mezua galtzeko arriskua sortuz. Horrexegatik, bederatzigarren korrikan Juan Gorritik lekukoa berritu zuen. Diseinu berbera baliatu zuen, baina oraingo honetan, lekukoari ezpelezko kiribil bat gehitu zion.

#### GIRO SOINUA

Dagoeneko Korrika Gipuzkoako hiriburura iritsi da. Korrika orok badu bere abestia, aurtengoa "Zirkorrika" da. Baina 1980. Urtean, lehen Korrikako abestiaren sortzaileak, Donostian irabazi zuen lehenengoz Euskal Herriko bertso txapelketa. Abeslari lanetan jarritako bertsolari hau Xabier Amuriza da.

#### AMURIZA KANTATUAZ (00.21)

"Zuek ere esan bai euskarari" Korrika hasi baino egun pare bat lehenago jaio zen. Enkargua garaiz betetzeko Amurizak, bere apaiz garaietan, Derioko itxialdian, Gogor taldearekin abesturiko eta Jon Lopategik sortutako Kantatuaz abestia hartu zuen erreferentziatzat.

#### GIRO SOINUA

Korrika Bilbora iritsi da. Ondarroan zeharkatu zuen Korrikak eta kostako errepidea jarraituz eta ezker aldea bisitatu ondoren, dator lasterketa.

Une honetan Korrika Gran Vian dago. Kalea jendez-lepo dago eta lekukoa 1832 kilometroan dago, doakotasunaren aldeko kilometroan. 4. Korrikan berriz, Edurne Brouardek eraman zuen lekukoa hemen, lehenengoz. Santi Brouarden erailketaren ondoren. Edurnek sekula ez du ahaztuko une hau.

#### AITAREN KILOMETROA BROUARD (00.22)

Hala ere, Edurne Brouardentzat ez zen hura izan Korrikarekin edukitako kontaktu bakarra. Lehen korrikan, Edurne AEK-ko ikaslea zen eta Errekaldeko AEKn zegoen garaiko D titulua lortzeko. Une horretan euskaltegien boom-a iritsi zen eta euskaltegiak berak klaseak emateko aukera eman zion. Gerora, 13. Korrikatik, 18.eraingo Korrikako Koordinatzaile postuan egon da, bestelako postuetatik pasa ondoren.

#### GIROA SOINUA ETA ABESTIA "Bat eta Bat, Korrika11", Joxe Ripiau

Korrika Laudiotik dabil. Aiaraldeko herri honetakoa da Asier Amondo, egungo Korrikako koordinatzailea. Herri honetan dauzka Amondok lehen Korrikaren oroitzapenak.

#### LEHEN OROITZAPENA AMONDO (00.14)

Gerora, Asier Amondo Laudioko AEK-n sartu zen ordezkapen bat egiteko eta 30 urte ondoren Korrikako koordinatzaile izatera iritsi da. Aurtengoa bigarren korrika izango da koordinatzaile postuan.

#### KORRIKETAKO EZBERDINTASUNA AMONDO (00.17)

#### ABESTIA "Bat eta Bat, Korrika11", Joxe Ripiau ETA GIRO SOINUA

Korrikak azken aurreko eguna hasia du. Goizean Oñatitik pasako da, euskararekin lotura zuzena duen herria eta lehen korrikako abiapuntua.

Euskalduntze mugimendua, Euskaltzaindia barnean jaio zen. Zenbait euskaltzalek euskara irakasteko eta euskaldunak alfabetatzeko beharra ikusi zutenean. Mugimendu honetan Rikardo Arregi Kazetaria zegoen eta Jose Maria Satrustegi euskaltzainari, gutun bidez, euskararen irakaskuntza ofizialki bultzatu beharra zegoela eskatu zion.

Era berean, 1965. Urtean lehen gau eskolak jaioak zeuden Euskal Herrian. Eta 1976an, Bizkaiko zenbait eskolek koordinatzea erabaki zuten, AEK izena hartuz.

Mertxe Mugika AEKko egungo koordinatzailea da. Erakundearen lehen urteetan, ez zuen AEK ezagutzen, nahiz eta euskalduntze mugimendua egon Elorrión.

#### AEK HASIERAN EZEZAGUN MUGIKA (00.21)

Gerora, Mertxe Mugika AEK-ko euskara irakasle bihurtu zen eta gaur erakundeko koordinatzailea da. Egun, AEK egonkortuta ikusten du.

#### TOKIA IRABAZI DU AEK MUGIKA (00.10)

### MUSIKA "Zirkorrika" ETA GIRO SOINUA

11 egun errepidean pasa ondoren Korrika Iruñara iritsi da. Sarasate pasealekura iritsi aurretik iruñerritik mugitu da lasterketa goizaldean eta 12.30, puntualtasun osoz, iritsi da. Lekukoaren atzetik, azken kilometroa gauzatuz, aek-ko ordezkariak joan dira.

### GIRO SOINUA

Lekukoa ireki bezain pronto argitu da mezugilearen misterioa. Azkenik, 20. Korrikako mezugilea Joseba Sarrionandia da.

### MEZUA SARRIONANDIA (00.23)

AEKren izenean, Xabi Gartziak hitz egin du eta aldaketa aldarrikatu du, euskaraz bizitzea, normaltasunez, pertsonak bezala. 20. Korrika amaitzeko lehenengoz entzun da "Zirkorrika" abestia zuzenean.

### ZIRKORRIKA ZUZENEAN (02.03 )

## 3.4 Kronograma

Erreportajearen grabaketa otsailean hasi eta apirilak 9a arte luzatu zen. Epe honetan, lehenbizi elkarrizketak gauzatu ziren (otsaileko azken astea eta martxoko lehen hiruak). 20. Korrikak iraun zuen bitartean lasterketaren jarraipena eta erreportajearen haria grabatu zen. Amaitzeko, erreportajea emititu ondoren, lanaren memoria gauzatu da apirileko azken bi asteetan eta maiatzean zehar.

	Otsaila				Martxoa				Apirila				Maiatza			
	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4
Elkarrizketak																
Jarraipena eta grabaketa																
Emisioa																
Memoria																

### 3.4.1 Sormen prozesuaren garapena

---

“Lasterketa, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajearen lan prozesuaren garapena zazpi hilabetetan gauzatu da:

#### 2016ko urriaren 24a

---

Gradu Amaierako Lanaren esleipen prozesuaren lehen egunean, 20.00 etan, jaso nuen lanaren esleipena. Lana “*Idazkera eta informazio lokuzioa irratian*” zen.

#### 2016ko azaroaren 16a

---

Terese Mendiguren tutorea ezagutu eta lehen tutoretza gauzatu ondoren, argi nuen erreportajeko gaia 20. Korrika izango zela. Hala ere, erreportajea gauzatzeko bi modu ezberdin nituen buruan:

**A-aukera:** 20. Korrikaren jarraipena egitea eta Otxandioko hasiera, garapena eta Iruñako amaiera kontuan hartuko lukeen erreportajea egitea. Erreportaje honetako protagonistak Korrikarekin erlazioa duten pertsonak dira eta lanaren haria korrikaren jarraipena izango litzateke, protagonisten kontakizunak tartekatuz.

**B-aukera:** Korrikaren ibilbideko zati baten kontaketa egitea da, hau da, EKT, elkarte edo pertsona multzo bati batu eta Korrikaren inguruko bizipenak eta hauen 20. Edizioaren kontaketa gauzatzea.

Azkenik, A-aukera hautatu nuen. Aukera honek Euskal Herria zeharkatzea eskatzen duen arren, politagoa, interesgarriagoa eta emankorragoa da.

Baita ere, lana emititzea helburutzat jarri nuen. Horregatik, ideia nagusia garatu ondoren, EITBko irratien zuzendari ordeari lana dossier baten bidez aurkeztea otu zitzaidan.

#### 2017ko urtarrilaren 18a

---

Ikasturteko lehen lau-hilea amaituta, Korrikaren antolatzaileek 20. edizioaren lehen aurkezpena egin zuten, Donostiako San Telmo museoan. Bertan, xehetasun hauek publiko egin ziren:

- **20. Korrikaren leloa:** BatZuk.
- **Data:** 2017ko martxoaren 30etik, apirilaren 9ra.
- **Ibilbidea:** Otxandiotik Iruñeara.
- **Korrikaren urtemuga jaia:** 20. edizioa ospatzeko, otsailak 11an, herri bazkari bat antolatuko du AEKK, irungo Ficoba erakustazokan.

- **Lehen korrikaren kontakizuna:** Lehen korrikako datekin bat eginez, Korrikak twitter-eko [@korrika](#) kontuan lehen korrikaren kontaketa gauzatu zuen.

Korrikaren historian sakontzen hasita, erreportajerako hainbat iturri pertsonaletan pentsatzen hasi nintzen. Pertsona hauek osatzen dute iturri pertsonalen lehen zirriborroa:

- Asier Amondo, Korrikako koordinatzailea.
- Julen Kaltzada, AEKko koordinatzailea lehen korrikan.
- Urtsa Errazti, lehen Korrikako koordinatzailea.
- Xabier Amuriza, lehen Korrikako abestiaren sortzailea.
- Julen Madariaga, lekukoa Hendaia mugara eraman zuen.
- Asun García, AEKko ikaslea, lekukoa Irungo mugan jaso zuen.
- Juan Gorriti, eskultorea eta lekukoaren sortzaileetako bat.
- Inotsi Mendiburu, Remigio Mendiburu eskultorearen alaba.
- Teresa del Valle, antropologoa.
- Eurne Brouard, Korrikako koordinatzaile ohia.
- Jagoba Manterola, Argazki Press-eko argazkilaria.
- Andoni Seijo, Korrikako "ibilbide" taldeko arduradun ohia.
- Mertxe Mugika, AEKko koordinatzaile nagusia.

### 2017ko urtarrilaren 25a

---

Erreportajearen prestaketarekin hasteko lehen puntuetako bat informazioa batzea izan zen. Batutako lehen informazioa, hauxe da:

- 20. Korrikako logoak.
- Iturriak:
  - Tribuaren berbak: 48. Korrika badator.
  - 25 urte korrika dokumentala.
  - *Korrika rituales de la lengua en el espacio* liburua.
  - *Euskal Herria Korrika 17 urte, 10 pausotan* liburua.
- Korrikaren edizio guztietako abestiak.
- Korrikaren edizio guztietako logoak.
- Iturri pertsonalen inguruko informazioa.
- GARA egunkariak 19. Korrikari buruz egindako edizio berezia.
- 20. Korrikaren ibilbidea.

### 2017ko urtarrilaren 26a

---

Erreportajearen informazio iturrietako bat Radio Euskadiko "Graffiti" saioan Korrikak izan duen tartearen izan da. Urtarrilaren 26tik aurrera, ostegunero, Korrikarekin erlazioa izan duten pertsonak pasa dira, errelebo lasterketaz hitz egiteko.

Lehen tartean, Jon Sanchez Barrado (Korrikako komunikazio arduraduna) eta Mertxe Mugika izan ziren lehen gonbidatuak eta xehetasun hauek aipatu zituzten:

- Korrikaren 20. edizioarekin errelebo lasterketak 37 urte bete ditu.
- Lehen urtean, Korrika hasi zen unean elurra hasi zen.
- Lasterketaren inspirazioa kilometroak izan ziren, baina festak mugikorra izan behar zuen.
- "Euskahaldun" leloak gizartean eragina izan du.
- Ibilbidea 11 egunetan gauzatu arren, bi hilabetetako prestaketa lana eskatzen du.
- 20. Edizioko Korrika kulturala.
- Korrikaren garrantzia nazioartean eta herrialde ezberdinetako Korrikak.

### 2017ko otsailaren 2a

---

"BatZuk euskararen lau aurpegi" dokumentalaren aurrestreinaldira gerturatu nintzen. Bertan, Jon Sanchez Barrado (Korrikako komunikazio arduraduna) ezagutu nuen eta erreportajeaz hitz egin genuen. Azkenik, ideian sakontzeko bilera bat egiteko gelditu ginen.

Baita ere, EITBko irratien zuzendari ordearekin topatu nintzen eta erreportajeaz hitz egin nion. Ideia gustatu zitzaion eta bilera batean erreportajea aurkezteko gelditu ginen.

### 2017ko Otsailaren 3a

Erreportajea garatzen hasita, AEKko komunikazio bulegoarentzat eta EITBko irratien zuzendari ordearentzat, erreportajea aurkezteko, dossier bana sortzen hasi nintzen. Dossier honek bi funtzio bete ditu: lana aurkeztea eta lana zehazten joatea. Dossierretan puntu hauek zehaztu dira:

AEKren dosierra	EITBren dosierra
1. Sarrera	1. Sarrera
2. Deskripzio orokorra	2. Deskripzio orokorra
3. Helburua	3. Helburua
3.1 Helburu nagusia	3.1 Helburu nagusia
3.2 Helburu zehatzak	3.2 Helburu zehatza
4. Gaia	4. Gaia
5. Ideia nagusia	5. Ideia nagusia
5.1 Estilo eta tonua	5.1 Estilo eta tonua
6. Sinopsia	6. Sinopsia
6.1 Elkarrizketatuak	6.1 Elkarrizketatuak
6.2 Egitura narratiboa	6.2 Errekurtsoa musikalak
6.3 Errekurtso musikalak	
7. Justifikapena	7. Justifikapena
8. Kronograma	8. Saioak
	9. Publikoa
	10. Kronograma

\*Dosierrak [eranskinak](#) atalean aurki daitezke.

### 2017ko otsailaren 3a

Dossierrean elkarrizketatu nahi diren pertsonak aukeratu ondoren, hauen testigantzak batzeko, Korrika ze puntutan jarraitu behar dudan aukeratu nuen. Honetarako, elkarrizketatu bakoitzari puntu geografiko bat ezarri nion.

Eguna	Lekua	Iturria
Martxoak 30	Otxandio	
Martxoak 30	Gasteiz	Urtza Errasti
Apirilak 1	Tutera	Alizia Iribarren
Apirilak 4	Hondarribia	Inotsi Mendiburu eta Juan Gorriti
Apirilak 4	Donostia	Xabier Amuriza
Apirilak 5	Lekeitio	Andoni Seiyo
Apirilak 6	Bilbo	Edurne Brouard
Apirilak 7	Laudio	Asier Amondo
Apirilak 8	Oñati	Mertxe Mugika
Apirilak 9	Iruñea	Mezugilea



### 2017ko otsailaren 8a

---

Terese Mendiguren tutorearekin gauzatutako bigarren tutoretzan gauzatutako lana azaldu nion, memoriaz hitz egin genuen eta grabazioari buruzko hainbat zalantza argitu genituen.

### 2017ko otsailaren 12a

---

AEKko komunikazio taldearekin batu nintzen, erreportajea aurkezteko. Bileran Jon Sanchez eta Iban Lantxo zeuden eta bilboko Lizardi euskaltegia gauzatu zen.

Erreportajearen ideia gustatu zitzaion eta elkarrizketatu beharreko pertsonen kontaktua lortzen lagundu zidaten. Erreportajeari transmedia ukituak gehitzeko proposamena jaso nuen. Azkenik, "transmediatasun" hori [pelilekuona.wordpress.com](http://pelilekuona.wordpress.com) blogeko post-etan islatu da.

Bileran Julen Kaltzada elkarrizketatuetatik baztertzeko esan zidaten. Izan ere, AEKko koordinatzaile ohia gaixo zegoen eta otsailak 22an ebakuntza bat zuen.

### 2017ko otsailaren 22a

---

EITBko irratiaren zuzendari ordearekin (Urko Aristi) batu nintzen, erreportajea aurkezteko. Erreportajea gustatu zitzaion eta aurkezturiko dossierrak inpresio ona gauzatu zion.

Erreportajearen hizkuntzaren inguruan desafio bat azalarazi nion. Erreportajea Radio Euskadin euskaraz emititzeko proposamena egin nion eta Aristik desafioari baiezkota eman zion.

Erreportajearen gutxieneko iraupena (8 minutu) ez zen arazo izan irratiaren zuzendari ordearentzat eta apirilaren 10 emititzeko proposamena gustatu zitzaion. Erreportajea Graffiti saioan emititzeko proposamena egin zidan eta emititu aurretik "kontestu" bat sortzeko proposamena egin zidan. Horretarako, Korrikaren 2. astean, Graffiti saioko "[diario de](#)" sekzioa nik egin nuen.

### *2017ko otsailaren 25a*

---

Elkarrizketatuak deitzen eta elkarrizketak prestatzen hasteko momentua iritsi zen. Lan hau gauzatzeko lau asteko epea planifikatu nuen:

- 1.astea → 2017/02/27 – 2017/03/05
- 2.astea → 2017/03/06 – 2017/03/12
- 3.astea → 2017/03/13 – 2017/03/19
- 4.astea → 2017/03/20 – 2017/03/26

### *2017ko otsailaren 28a*

---

Lehen elkarrizketak ixten hasi nintzen eta elkarrizketatu batzuekin kontaktuan jartzeko arazoak eduki nituen:

- Inotsi Mendiburuk ez zuen e-maila erantzuten.
- Alizia Iribarrenek ez zituen deiak erantzuten.
- Urtsa Errasti Alabaman zegoen eta hurrengo astean deitzeko esan zidan.

Lehen elkarrizketak ere finkatu ziren:

- 2017/03/02 → Mertxe Mugika, AEKko Koordinatzailea. 11.30etan, Bilboko Lizardi euskaltegian.
- 2017/03/06 → Andoni Seiyo, "Ibilbide" taldeko kide ohia. 18.00etan, Lekeitiokoko autobus geltokian.
- 2017/03/08 → Asier Amondo, Korrikako koordinatzailea. 9.00etan, Bilboko Lizardi euskaltegian.
- 2017/03/10 → Juan Gorriti, lekukoaren egilea. 18.00etan, Arriben.

### *2017ko martxoaren 2a*

---

Mertxe Mugika elkarrizketatu nuen. 25 minutuko elkarrizketa izan zen eta ondo egon zen. Elkarrizketaren egun beran korteak atera nituen eta Mertxe Mugikaren ataleko gidoia hasi nuen.

### *2017ko martxoaren 6a*

---

Lekeitiora gerturatu nintzen, Andoni Seiyo elkarrizketatzera. Elkarrizketa Lea tabernan gauzatu zen eta batzuetan zarata egon arren, grabazioa ondo entzuten da.

### 2017ko martxoaren 7a

---

Kontaktuak aurrera joan ziren eta pertsona guztiekin jarri nintzen kontaktuan Inotsi Mendiburu eta Alizia Iribarrenekin izan ezik. Beste bi elkarrizketa itxi nituen:

- 2017/03/09→ Urtsa Errasti, lehen bost korriketako Koordinatzailea. 17.30etan, Mutualiaren Henaoko bulegoan.
- 2017/03/15→ Xabier Amuriza, lehen Korrikako abestiaren sortzailea. 10.00etan, Matienako San Blas Hostalean.

### 2017ko martxoaren 14a

---

Elkarrizketen hirugarren astean barneratuta, editatua eta amaitua zegoen zati bakarra Mertxe Mugikarena zen. Gauzaturiko beste elkarrizketen edizioa eta hauen gidoi atalak, martxan zeuden.

Iturri guztietatik Inotsi Mendibururekin ez nuen lortu kontaktuan jartzea eta Urko Aristik, EITBko irratien zuzendari ordeak, Arriben, Juan Gorritik Korrikari omenaldi bat egingo ziola azaldu zidan. Horregatik, Hondarribiako atala kentzea hautatu nuen, Gorritiri protagonismoa handituz eta Arriberi lekua emanaz. Baita ere, Donostiara joateko denbora gehiago lortu nuen, hartutako erabakiarekin.

<b>Eguna</b>	<b>Lekua</b>	<b>Iturria</b>
Martxoak 30	Otxandio	
Martxoak 30	Gasteiz	Urtsa Errasti
Apirilak 1	Tutera	Alizia Iribarren
Apirilak 4	Arribe	Juan Gorriti
Apirilak 4	Donostia	Xabier Amuriza
Apirilak 5	Lekeitio	Andoni Seijo
Apirilak 6	Bilbo	Eduarne Brouard
Apirilak 7	Laudio	Asier Amondo
Apirilak 8	Oñati	Mertxe Mugika
Apirilak 9	Iruñea	Mezugilea

### 2017ko martxoaren 15a

---

Xabier Amuriza elkarrizketatzera gerturatu nintzen, Matienako San Blas hotelera. Elkarrizketa ondo joan zen eta Xabier Amurizak "Kantatuaz" abestia kantatu zuen eta guzti. Erretiratu ondorengo azken elkarrizketetako bat izango zela azaldu zuen.

### **2017ko martxoaren 17a**

---

Alizia Iribarren elkarrizketatzeko, Tuterako euskaltegira joan nintzen. Elkarrizketa ondo joan zen.

### **2017ko martxoaren 22a**

---

Elkarrizketen azken astean sartu nintzenean, edizioa izan zen gauzatu beharreko lan nagusia. Aste honetan elkarrizketak eta gidoiak landu nituen eta Edurne Brouard-en elkarrizketa prestatu nuen.

### **2017ko martxoaren 23a**

---

Zaila izan da iturri guztiei nahi beste denbora eskaintzea erreportajearen. 10 minutuko iraupena lortu ahal izateko pertsona batzuen testigantza asko murriztu nuen.

Edurne Brouard elkarrizketatu ondoren, Korrikaren aurkezpen sozialera joan nintzen. Bertan, 20. Korrikaren mezu nagusia, "BatZuk", azaldu zuten jaioterri ezberdinetako euskara ikasleek. Azkenik, Korrikagatik topa egin genuen.

### **2017ko martxoaren 29a**

---

Edurne Brouard-en zatiarekin, gidoiaren gehiengoa amaitu nuen eta erreportajea grabatzeko korte guztiak prest zeuden.

### **2017ko martxoaren 30a**

---

Martxoaren 30ean, sormen prozesuko bigarren fasean, Korrikaren jarraipena eta erreportajearen grabazioa hasi zen. Otxandiora gerturatu nintzen eta 20. Korrikaren hasiera grabatu nuen.

Ekitaldia grabatuta Korrikaren atzetik joan nintzen, Legution lasterketa aurreratu nuen eta Gasteizera iritsi nintzen. Bertan, hiru puntu ezberdinetan grabatu nuen lasterketa.

### **2017ko martxoaren 31a**

---

Segalarien antzera, aurreko egunean grabatutakoa laburtzen hasi nintzen. Puntu honetatik aurrera, iraupen arazoak edukiko nituela somatzen hasi nintzen. Tuterako atala laburra izanik, Tuterara ez joateko hautua egin nuen. Bidaian aurreztutako denbora erreportajea editatzen jarraitzeko baliatu nuen.

### *2017ko apirilaren 4a*

---

Goizeko 4etan esnatu ondoren, Arribera iritsi nintzen. Bertan, grabagailua guztiz kargatua ez zegoela konturatu nintzen, nahiz eta gau guztia grabagailua kargatzen egon. Azkenean, konturatu nintzen grabagailuaren pilak ez zirela kargagarriak.

Arriben, Juan Gorritik Korrikari egindako olerkia eta oroigarria erakutsi zidan. Korrika pasa zen unea grabatu nuen eta Gorritiren olerkia ere. Zoritxarrez, furgonetaren zarata dela eta, olerkiaren uneak ez du behar besteko kalitatea erreportajera batzeko eta kanpoan gelditu da.

Errelebo lasterketa Tolosaraino jarraitu nuen eta bertan giro soinua grabatzeko aprobetxatu nuen. N-1 errepidea baliatuz Billabona eta Andoain eta Urnieta artean grabatzeko aukera ere izan nuen.

Arratsaldean, Donostiatik jarraitu nuen lasterketa. Egia eta Trintxerpe inguruan jarraitu nuen lasterketa, grabazio pare batzuk eta giro soinua grabatu nuen.

### *2017ko apirilaren 5a*

---

Goizean erreportajea editatzen jarraitu nuen eta erreportajearen hamar zatietatik, lau editatuta. Iraun beharrekoa baino bi minutu nituela konturatu nintzen. Dagoena laburtzen saiatu arren, Lekeitioko eta Andoni Seijoren zatia kendu nuen. Pena handiz kendu nuen zati hau, baina, gehiegi ez luzatzeko modu eraginkorrena izan zen.

### *2017ko apirilaren 6a*

---

Korrika bilbotik jarraitzeko, Alonsotegira gerturatu nintzen. Bertan, giro soinua grabatu eta grabazio batzuk gauzatu nituen. Bertatik, Bilbo Zaharreraino jarraitu nuen lasterketa. Eguneko jarraipena Gran Vian amaitu nuen.

### *2017ko apirilaren 7a*

---

Laudiora edukitzeko intentzioa eduki arren, ezin izan nuen bertaratu. Hala ere, Galdakaora joan nintzen giro soinua grabatzera. Arratsaldean Edurne Brouard eta Asier Amondoren zatiak editatu nituen.

### 2017ko apirilaren 8a

---

Oñatira berandu iritsi arren, lasterketa aurreratzeko aukera eduki nuen eta Arrasate eta Oñatiko mugan grabatu nuen Korrika. Arratsaldean, atal hau editatu nuen.

### 2017ko apirilaren 9a

---

Iruñean Joseba Asironek lekukoa hartu zuen unea eta Estafeta kaleko giroa grabatu nuen. Lasterketaren amaiera Kazetarien plataformatik jarraitu eta grabatu nuen. Bertan, lineako maila saturatua egon arren, maila konpondu nuen eta ondo grabatu zen.

Ekitaldia amaitu bezain pronto, erreportajearen edizioa amaitzeari ekin nion. Egunean grabatutakotik, Asiron eta Estafetako zatiak ez nituen erreportajeant sartu, amaiera ekitaldiarekin nahikoa zelako.

### 2017ko apirilaren 10a

---

Erreportajea Radio Euskadiko Graffiti saiora bidali nuen eta hauek erreportajea laburtzeko baimena eskatu zidaten. Arratsaldean emititu zuten erreportajea eta web gunean [erreportaje osoa](#) igo zuten.

### 2017ko apirilaren 14a

---

Erreportajea emititu ondoren, memoriarekin hasi nitzen. Garatu beharreko lehen puntuak memorian jorratu beharreko puntuak zeintzuk izango ziren zehaztea izan zen. Honetarako, ADDI plataforman eskegita dauden bestelako sormen lanak kontsultatu nituen eta "Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika" erreportajearen memoriara hoberen aplikatzen ziren puntuak aukeratu nituen.

### 2017ko apirilaren 26a

---

Memorian sartu beharreko puntuak zehaztuta, lana garatzen hasi nintzen. Hala ere, Terese Mendiguren tutorearekin jorratu beharreko puntuak kontsultatzeko maiatzaren bigarren egunerako tutoretza bat gauzatzea adostu genuen.

### *2017ko maiatzaren 2a*

---

Lanaren lehen bi zatiak eginda, Terese Mendiguren tutorearekin batu nintzen memoriako puntuen xehetasunak zehazteko. Zuzenketan, Iturri pertsonalak iturriak atalean kokatzea adostu zen, azalpen memorian jarri beharrean. Baita ere, lan kronograma eta sormen prozesua atala sormen prozesuan sartzea adostu zen, atal berezitu bat izan ordez.

### *2017ko maiatzaren 15a*

---

Memoria amaituta, Terese Mendiguren tutoreari lana bidali nion azken xehetasunak ixteko.

### *2017ko maiatzaren 23a*

---

Gauzatu beharreko zuzenketak jakinda, memoria doitu eta amaitu nuen.

## 4. KONPETENTZIAK ETA ZAILTASUNAK

---

### 4.1 Konpetentziak

---

“Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajearen azken lau urteetan neureganatu ditudan konpetentzia ezberdinak aplikatzeko aukera izan dut.

Erreportaje bat diseinatzen eta hau irratira aplikatzen ikasi dut “*Berrien Idazkera Irratian*” ikasgaiaren eta “Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajearen gaitasun hauek aplikatzen saiatu naiz.

Iturrien lanketa gauzatu da erreportajearen. Korrikarekin erlazionatutako pertsonekin erlazio bat sortu da eta elkarrizketatu guztiek adeitasunez parte-hartu dute erreportajearen.

Gaurkotasuna duen proiektu bat gauzatu da. Korrika bi urtero albiste izaten da eta “Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajea gaurkotasunaren zati izan daiteke. Korrikan sakontzeko balio du erreportajeak eta 2017. urteko eta 20. Korrikaren edizioaren lekukotasun bat da.

Gauzatutako lanari kazetaritza generoa eman zaio. Horregatik erreportajearen ezaugarri nagusiak kontuan hartu dira: informazioaren sakontzen da, erreportajea gauzatzeko prestaketa lan handia egin da eta erreportajeak entzulea informatzen du.

Klaseetan lokuzioaz ikasitakoa erreportajearen aplikatu da. Horregatik, lokuzioaren erritmoa dago, hitzak azpimarratzen dira eta naturaltasuna sustatzeko saiakera egin da erreportajearen.

### 4.2 Zailtasunak

---

Erreportajea gauzatzeak bere zailtasunak ekarri ditu. Lehen zailtasuna grabagailua izan zen. Erabilitako grabagailua ez nuen ezagutzen eta hasieran zaila egin zitzaidan grabagailua ondo prestatzea. Hasieran, grabagailuko pilak kargagarriak zirela uste nuen eta gau batean, ustez, grabagailua kargatzen utzi nuen eta grabagailua berriz hartzean, bateria ez zegoen kargatua.

Iraupena erreportajearen harria izan da. Argi nuen zortzi minutuko gutxiengo iraupena gaitutako nuela, baina iturri pertsonalen kontakizunak laburtzeko lan handia egin da eta material asko kanpoan gelditu da. Zaila da lan sakon eta iturri askotakoa egitea iraupen labur bat eginez.



## 5. ONDORIOAK

---

"Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika" erreportajeko ondorioetako bat iturriekin sortu den harremana da. Lehen unetik iturri guztiek partehartzeko gogoia izan dute eta galdera guztiei erantzuteko prestutasuna erakutsi dute. Gainera, elkarrizketatuetako bat emozioz negarrez hasi zen elkarrizketan. Jazoera hau ez zitzaidan inoiz gertatu eta halako xehetasunetan somatzen da elkarrizketatuaren prestutasuna.

Baita ere, lanak eskatzen duen aurreko prestaketa handia izan da. Dokumentazio lana sakona izan da, prestaketa lanak denbora luze iraun dute eta grabaketak 11 egun iraun ditu. Unibertsitatean gauzaturiko lanetatik prestaketa lan handiena eskatu duen erreportajea izan da "*Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika*". Prestaketa lanen sakontasuna dela eta, erreportaje honekiko erlazio berezi bat sortu da eta gauza dezakedan lanaren erakusgarri bihurtu da.

Korrikari dagokionez, nire ezagutzak zabaldu ditut. Errelebo lasterketa nola sortu zen eta nola antolatzen den ikasi dut. Ezagutza hauetan sakonduta, errelebo lasterketaz hitz egiteko edo gaia lantzeko gaitasuna neureganatu dut.

Erreportaje luze bat egiten ikasi dut. Sakontasuna duen lan bat da "*Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika*" eta gaia sakontasunez jorrazteko saiakera egin da. Honela, erreportajea azalean gelditzen diren albisteetatik bereizten da eta gehiago informatzeko aukera ematen du.

Korrikarekiko interesa asetu dut. Irribarre gehien sortzen dituen manifestaldia ezagutu dut eta bertatik-bertara bizitzeko aukera izan dut. Ekitaldiaren jarraipena egin dut eta albistearen atzetik joatea atsegina egin zait.

## 6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

---

AEK. (1983). "Korrikaren historia", *Aizu*, 8, Azaroa, 8-9.

Arregi, B. (2016). "Euskararen mapa berrien premia: hiztun errealeen mapak", *Sustatu.eus*, <https://sustatu.eus/1452246875> helbidetik eskuratua

Arregi, R. (1966.eko Urtarrilak 17). [Jose Maria Satrustegi euskaltzainari idatzitako gutuna]. "Euskal alfabetatze ekintzaren lehen iturriak", *Euskaltzaindia.net*, <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50977.pdf> helbidetik eskuratua

Burgaleta, A., Bidarte, M., & Telleria, I. (2017). "Urtsa Errazti: «Jubilatzeko zain nago, berriz ere AEKra lanera itzultzeko»", *Naiz.eus*. <http://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20170409/urtsa-errazti-jubilatzeko-zain-nago-berriz-ere-aekra-lanera-itzultzeko> helbidetik eskuratua

Díaz Aguilar, A. M., Bazalo Porras, C. M., Escalona Andreu, A., Muñoz Navarro, A., & Pérez Rufí, J. (2015). *Industrias Audiovisuales en España: Producción, Consumo y Mercado*. Malaga: EUMED.NET.

Gurrutxaga, A., Mikel, E., & Ubeda, G. (1997). *Euskal Herria Korrika: 17 urte 10 pausotan*, Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea.

Valle, T. d. (1988). *Korrika rituales de la lengua en el espacio*. Bartzelona: Anthropos editorial del hombre.

## 7. ERANSKINAK

---

- A. AEK-ko komunikazio bulegoari aurkeztutako dossierra.
- B. EITB-ko irratien zuzendari ordeari aurkeztutako dossierra.
- C. Erreportajearen eskema orokorra.
- D. 20 Korrikak.

### **Oharra:**

---

“Lasterka, arineketan, antxintxika, korrika” erreportajea FLAC formatuan dago. Hortaz, erreportajea entzuteko plataforma egokiena VLC erreproduzizailea da.